

## FUNTSEZKO BAZKIDEAK

Gure proiektua aurrera eramateko hurrengo bazkideen lankidetzak beharrezkoa izango dogu:

- **Arropa salduko deusku hornitzaileak:** Gure dendaren hornitzaileak haien jaldietarako erropa saldu nahi dauan jentea da. Jenteak erropa guri saltzeko, erropa lokalera eroan ahalko dau eta bertan prezioa adostu eta salerosketa gauzatuko da. Alde batetik, Instagrameko kontu bat sortuko dogu, eta horren bidez, jakinarazoko dogu zein egunetan eroan leike jenteak bere erropa eta zer nolako irizpideak jarraituko doguzan erropa baloratzeko, horrela, hornitzaileak jakin ahalko dau bere jantziaren truke zenbat diru lortu leiken. Bestalde, Vinted plataforman kontu bat sortuko dogu, eta horren bidez plataforma honetan salmentan dagoan erropa aztertuko dogu, eta gure interesekoa bada, erabiltzaileekaz harremanetan jarriko gara erropa hori erosteko eta erosketak dakarrezan izapideak burutzeko.
- **Bezeroak:** Bezeroak funtsezko bazkideak izango dira ahoz-ahoz gure negozioaren berri emango dabelako familiaren, lagunaren eta ezagunen artean. Modu honetan, konfidantzan oinarritutako negozioa ezarriko dugu ezagunen artean gomendatutako denda bat izango delako.
- **Bankuak:** Bankuak funtsezko bazkideak izango dira finantzaketa emango deuskuelako, finantzaketa negozioa aurrera eramateko oinarritzko elementu bat da eta.
- **Lokalaren jabea:** Jabeak lokala alokatuko deusku negozioa han ezarri ahal izateko.
- **Sare sozialak:**
  - **Vinted:** Bigarren eskuko arropa saltzeko eta erosteko sare sozial honek lagunduko deusku gure intereseko arropa hornitzailei erosi ahal izateko. Erabiltzaileekaz harremanetan jarriko gara erropa hori erosteko eta erosketak dakarrezan izapideak burutzeko.
  - **Instagram:** Instagram erabiliko dogu gure negozioaren profila sortzeko eta gure dendako arropa erakusteko. Honetaz gain, jakinarazoko dogu zein egunetan eroan leike jenteak bere erropa eta zer nolako irizpideak jarraituko doguzan erropa baloratzeko, horrela, hornitzaileak jakin ahalko dau bere jantziaren truke zenbat diru lortu leiken.
  - **TikTok:** Sare sozial hau erabiliko dogu bereziki erroparen promozioa eta erakusketa egiteko. Interesa pizten bada, gure Instagrameko kontua adieraziko dogu kontaktuan jarri ahal izateko.
  - **Irratia:** Bertako irratiak (Gaztea, Euskadi irratia, Radio Nervi3n...) funtsezkoak izango doguz gure dendaren publizitatea argitaratzeko.